

IRAKASLE ZEREGINA
DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN)



HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

LEHEN HEZKUNTZA GRADUA
DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN)
IRAKASLE ZEREGINA MODULUA
GIDA

MAILA: 1
LAUHILEKOA: 1
IKASTURTEA: 2016-2017

IRAKASGAIK ETA IRAKASLEAK:

Garapenaren Psikologia Eskola Adinean:

Blanca Olald, Lorena Revuelta.

Hezkuntzaren Soziologia - Sociology of Education:

Maialen Garmendia, Iker Iraola, Mikel Olazaran.

Hezkuntzaren Teoria eta Historia:

Pello Jauregi.

Irakasle Funtzioa:

Justo Bereziartua, Estibaliz Amenabarro.

Komunikazio Gaitasunaren Garapena I:

Amaia Serrano, Ainhoa Ezeiza.

MODULUAREN KOORDINATZAILEA:

Iker Iraola

AURKIBIDEA

1.-	SARRERA.....	1
2.-	KONPETENTZIAK.....	2
3.-	TALDEAREN EZAUGARRIAK.....	4
4.-	LAN GIDATUA.....	5
4.1.-	Gai-multzoak.....	5
4.2.-	Gidoia.....	5
4.3.-	Arduradunak eta Kronograma.....	7
5.-	EBALUAZIOA.....	9
ERANSKINA: 1. IKASLE-TALDEAREN FITXA.....		12
ERANSKINA: 2. MODULUAREN EBALUAZIO-ORRIA.....		13

1.- SARRERA

Graduko titulazioetan irakasgai bakoitzak bere gaitasun zehatzak ditu baina, horiez gain, zehar-gaitasunak ere badaude, irakasgai guztietan landu behar direnak.

Lehen Graduko lehen lauhileko honetan, Irakasle Zeregina moduluko bost irakasgaien artean proiektu bat garatu behar dute ikasleek taldean:

Komunikazio Gaitasunaren Garapena I			
Hezkuntzaren Soziologia - Sociology of Education	Hezkuntzaren Teoria eta Historia	Irakaskuntza Funtzioa	Garapenaren Psikologia Eskola Adinean

Proiektu honek bost irakasgaietako jakintzak integratzea eskatzen du idatzizko txosten batean bildurik. Amaieran, proiektuaren ahozko aurkezpena egingo da, epaimahai baten eta ikaskideen aurrean.

Komunikazio Gaitasunaren Garapena I irakasgaiak ekarpen instrumentala egiten dio modulari, hau da, testu akademikoen ulermenarena eta ekoizpenarena; hori adierazteko eman zaio goiko irudian ikusten den kokapena. Gainontzeko irakasgaien ekarpena diziplina horien edukiekin dago lotuta.

2.- KONPETENTZIAK

Beheko taulan ikus daitezke Lehen Hezkuntzako Graduaren konpetentzietatik zein diren Irakasle Zeregina modulu honi dagozkionak: beren definizioa, batetik, eta konpetentzia horiek modu eraginkorrean garatzeko zehaztutako deskriptoreak, bestetik.

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUAREN KONPETENTZIAK	DESKRIPTOREAK
G008. Harreman kritiko eta autonomo bat edukitzea jakintzei, balioei eta gizarte-erakunde publiko nahiz pribatuei dagokienez.	PENTSAMENDU KRITIKO ETA AUTONOMOA
G010. Irakaskuntza-lana berritzeko eta hobetzeko ikasgelan egiten diren praktiken inguruan gogoeta egitea. Ikaskuntza autonomorako eta lankidetzazkorako ohiturak eta trebetasunak eskuratzea eta ikasleen artean hori sustatzea.	PRAKTIKARI BURUZKO HAUSNARKETA
G011. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezagutzea eta ikasgeletan aplikatzea. Ikaskuntzari, heziketa herritarrari eta kultura-aberastasunari lagunduko dion ikus-entzunezko informazioa bereiziz hautatzea.	DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIOA AUKERATZEA (IKT)
G012. Lehen hezkuntzako ikastetxeei eta bertako profesionalei eragiten dieten oinarrizko konpetentziak eta egungo gizartean hezkuntzak betetzen duen eginkizuna eta dituen aukerak eta mugak ulertzea. Kalitatea hobetearren hezkuntza-zentroetan aplikatu daitezkeen ereduak ezagutzea.	HEZKUNTZA- ZENTROAREN EGINKIZUNAK: HOBETZEKO PROPOSAMENAK
G013. Euskara eta gaztelania eta, gutxienez, atzerriko beste hizkuntza bat menderatzea, hizkuntza egoki eta zuzen sortzeko eta ulertzeko gaitasuna erakutsiz bere lanbidea hizkuntza anitzeko hezkuntza-testuinguruan gauzatu ahal izateko, baina betiere, hizkuntzen nahiz kulturen dibertsitatea errespetatzeko jokabideak garatuz.	KOMUNIKAZIO- KONPETENTZIAK

IRAKASLE ZEREGINA MODULUAREN BERARIAZKO KONPETENTZIAK

1.- Hezkuntza komunitatearen nahiz gizarte inguruneko edo irakaskuntza laneko arazo eta kezketatik abiatuz, gai horien inguruan galderak eta hipotesiak formulatzea eta elkarlanean ordenatzea. Gai-multzoak: *bizikidetza; familia eta eskola; generoa eta hezkidetza; kulturartekotasuna; desberdintasun sozioekonomikoa eta hezkuntza*. G010

2.- Hezkuntzaren eremuko informazio iturrietan eta dokumentuen datu baseetan sartuta, gaiei dagozkien edukiak jakin-minez bilatzea eta irizpidez hautatzea. G011

3.- Hezkuntzari alderdi psikologiko, pedagogiko eta soziologikotik begiratuta, ideiak aukeratu, ikaskideen artean osatu eta berriak eraikitzea aipaturiko ezagutza arloen artean loturak eginez. G012

4.- Lehen Hezkuntzaren esparruko aztergai diren arazoak ezagututa, irakasle zereginen inguruko teoriak adibide zehatz eta errealekin lotzea, eta esperientzia pertsonalen sintesia eginez, patroi abstraktu edo kontzeptu batzuk ateratzen ahalegintzea. G008

5.- Oinarrizko hezkuntzaren arloko informazioa hartu eta nork bere diskurtso propio, zehatz eta koherentea aurkeztea, euskarazko ahozko eta idatzizko azalpenen bidez, informazio horien egileen mezuak argi transmitituz. G013

3.- TALDEAREN EZAUGARRIAK

Taldearen ezaugarriak honako hauek dira:

- Taldekideen kopurua 4koa izango da. 3ko taldeak salbuespen gisa onartuko dira soilik.
- Taldeak ikasleek beraiek osatuko dituzte eta identifikatuko duen izena izango du*. Izen horrek ahoskera erraza edukiko du, termino bakarrekoa izango da eta ez du zenbakirik izango.
- Gida honen bukaeran bete beharreko taldearen fitxa dago. Fitxa hori beteta, Iker Iraola irakaslearen postontzian utzi behar da, **2016ko urriaren 3rako. Epe hau betetzea ezinbestekoa da proiektuan parte hartzeko.**
- Taldeak osatu eta fitxa emateak klaseetara etorri eta taldeko lanetan parte hartzeko konpromisoa adierazten du. Konpromiso horri erantzutea ezinbestekoa da taldean jarraitzeko. Arazoren bat sortuz gero, hilabeteko epea dago ebaluazio mota hau uzteko.
- Behin taldeak osatuta, irakasleen artean tutore bat izendatuko da, taldearen aurrerapenean laguntzeko. Edonola ere, irakasle guztion laguntza jasoko da prozesuan zehar. Irakasle tutore hori ez da izango talde horren azken lanaren ebaluatzailea.
- Talde bakoitzak, lanaren ahozko aurkezpena egin ondoren, aldeztu aurretik izendatutako beste talde baten galdera-iruzkina jasoko du. Epaimahaia osatzen duten ebaluatzaileek ere galderaren bat egin liezaiokete aurkezpena egin duen edozein taldekideri.

**Oharra: Gomendatzen da Soziologia irakasgaiaren ere elkarrekin egotea taldeak osatzean.*

4.- LAN GIDATUA

4.1.- *Gai-multzoak*

Ikasle taldeek gai-multzo hauen artean aukeratu behar dute:

Bizikidetza

Familia eta eskola

Genero eta hezkidetza

Kulturartekotasuna

Desberdintasun sozioekonomikoa eta Hezkuntza

Gai-multzo horiek EZ DIRA LANEN IZENBURUAK IZANGO. Lantalde bakoitzak jorratu nahi duen gai-multzoa hautatu ondoren, landuko duen gaiaren izenburua aukeratu eta lanaren diseinu zehatza proposatu behar dio tutoreari .

4.2.- *Gidoia*

Egin behar den lana 6-7 orrialdeko testu koherentea izango da, ez da inondik inora informazio-bilduma hutsa izango. Lehendabizi, hautatutako gaiaren inguruan, ikasle talde bakoitzak ikerketa-galderaren/kezkaren bat formulatuko du; gero, sortutako kezka hori 3 informazio-iturri adierazgarriekin lotu, josi egingo da; bukatzeko, taldeak azken hausnarketa egingo du.

Sortu behar den testuak lan akademikoen oinarritzko ezaugarriak bete behar ditu: zehaztasuna, eduki arrazoituak, informazio-iturrien erreferentziak eta hiztegi teknikoak.

Idatzizko txostenak atal hauek izango ditu:

1.- Identifikazioa:

- Izenburua (eta azpi-izenburua, baldin badauka)
- Taldearen izena eta ikasgelaren kodea, adibidez: 31(1), 31(2)...
- Taldekideen izen-deiturak, ofizialki agertzen diren eran
- Data

2.- Lanaren muina: ikasle-taldeak erabakiko du nola egituratu txostena. Atal nagusiak ardatz hauen inguruan osatuko dira.

- Ikerketa-galderaren/ kezkaren azalpena
- Kezka hori 3 informazio-iturri adierazgarriekin lotzea

IRAKASLE ZEREGINA
DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN)

- c. Azken hausnarketa. Galdera hauei erantzutea: *zertan gelditu da hasierako kezka, informazio-iturri horiek irakurri ondoren? Nola erantzungo genioke orain, laburki, kezka horri?*

Prozedura hauek **lagungarri** gerta dakizkioke ikasle-taldeari: (Atal hau ez da derrigorrezkoa)

- Hasierako hiru galdera idatzi (taldean abiatzeko sortzen direnak)
- Galdera bakoitzari lotutako beste hiruna galdera egin (diziplina guztietakoak)
- Informazioa (irakurgaiak) bilatzeko hitz gakoak hautatu.
- Irakurketa aldiaren ondoren, informazioaren eta galderen arteko korrespondentzi analisia egin. Galderaz galdera, bakoitzari dagozkion informazio zatiak bildu eta laburpenak idatzi, 8-10 lerro.
- Idazlanaren lehen eskema aurkeztu.
- Informazio berria bilatu
- Lehengo eskema osatu
- Bigarren irakurketa eta hausnarketa kritikoa. Orain arte bildutako informazioari lan taldeak erantsten diona jaso, erreferentzi irizpide hauek erabiliz: norberaren ezagutza eta esperientzia, adibide adierazgarriak, hezkuntzako lanbideen oinarri emaile etikoak, kode deontologikoa, haurren eskubideak.

3.- Erreferentzia bibliografikoak: APA arauen 6. argitalpenari jarraituz egingo dira.

4.- Bestelako iturriak: gaia kokatzeko edo osatzeko erabili diren bestelako iturriak hemen erreferentzia daitezke (filmak, liburuak, ipuinak...). Atal hau ez da derrigorrezkoa.

EZAUGARRI OROKORRAK:

- Letra Arial 11 izango da, lerroarteko xumez (1,0 koa). Paragrafo arteko banaketa aukerakoa da, baina egonkorra izan behar du testu osoan zehar.
- Idatzizko txostenaren azken bertsioa tutoreari helaraziko zaio **2016eko abenduaren 2an**. EPE HAU EZIN DA LUZATU, EZINBESTEKOA DA BETETZEA. Ikasle-taldeak adostuko du tutorearekin zein euskarritan entregatu txostena (paperean, fitxategi elektronikoan...).

4.3.- *Arduradunak eta Kronograma*

DILAN moduluko lanerako, lau rol finkatu dira. Hauek dira rol bakoitzaren zeregin nagusiak eta bete beharreko kronograma:

KOORDINATZAILEA

NOIZ	ZEREGINA
2016/09/19ko astean	Ikasleei gida aurkeztea
2016/10/03	Eskolako postontzian taldeen fitxak jasotzea
2016/10/10	Tutoreak izendatzea
2016/11/21eko astean	Epaimahaiak osatu eta taldeen ahozko aurkezpenen egutegia finkatzea
2016/12/19ko astean	Moduluaren ikasleen ebaluazioa antolatzea (ikus. 2.eranskina)
2017/01/09ko astean	Epaimahaiek emandako kalifikazioak jaso eta ikasleei helaraztea

TUTOREA

NOIZ	ZEREGINA
2016/10/10etik aurrera	Haren ardurapeko taldekideekin harremanetan jarri eta tutoretza prozedura hitzartzea. Ikasleek erabili behar dituzten 3 informazio-iturriei oniritzia ematea
2016/11/18	Lanaren lehenengo bertsioa jaso eta gainbegiratzea
2016/12/02	Haren ardurapeko taldeen txostenak jaso eta talde bakoitzaren epaimahaikideei helaraztea, aurretik adostutako euskarrian

Tutoreak lanaren orientazioan eta taldearen funtzionamenduan aholkularitza emango du. Lanaren edukia eta garapena lauhilekoan parte hartzen duten irakasleen ardura da.

IRAKASLE ZEREGINA
DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN)

IKASLE-TALDEA

Kronograma honetako zereginak betetzea ikasle-taldearen ardura izango da.

NOIZ	ZEREGINA
2016/09/19ko astean	Gidaren aurkezpena
2016/10/03	Taldea osatu, gaia hautatu, talde-fitxa bete eta uztea Iker Iraola irakaslearen postontzian (Eskolako sarreran). Taldearen fitxa gida honen 1. eranskinean dago
2016/10/10etik aurrera	Egokitutako tutorearekin harremanetan jarri eta tutoretza-prozedura adostea. 3 informazio-iturrien inguruan tutorearen oniritzia jasotzea
2016/11/18	Tutoreari lanaren lehenengo bertsioa bidaltzea
2016/12/02	Tutoreari behin betiko lana helaraztea EPEMUGA HAU ERRESPETATZEA EZINBESTEKOA DA
2016/12/12tik 16ra	Egokitutako egun eta orduetan ahozko aurkezpenetara bertaratzea eta aldeztu aurretik esleitutako taldeari galdera-iruzkina egitea. Nahitaezkoa da praktika-taldeko aurkezpen guztietara joatea
2017/01/09ko astean	Koordinatzaileak azken kalifikazioak argitaratuko ditu

EPAIMAHAIKIDEA

NOIZ	ZEREGINA
2016/11/21eko astean	Koordinatzaileak epaimahaiak osatu eta taldeen ahozko aurkezpenen egutegia finkatuko du
2016/12/02	Ebaluatu behar diren taldeen txostenak bidaliko dituzte tutoreek
2016/12/12tik 16ra	Ahozko aurkezpenak ebaluatzea
2017/01/09	Koordinatzaileari taldeen kalifikazioak bidaltzeko azken eguna

5.- EBALUAZIOA

Bi ebaluazio mota egongo dira:

.- Klasera etortzeko aukera duten ikasleek moduluko lana egingo dute. Asistentzia kontrolatuko da eta gutxienez aurrez aurreko eskola orduen % 75era etorri behar da.

.- Ehuneko horretara iristen ez diren ikasleek moduluko kompetentziak lortu direla erakusteko probaren bat egin beharko dute irakasgai bakoitzean. Irakasgaiak finkatuko du nola ebaluatuko diren kompetentzia horiek.

Moduluko lanean parte hartu ahal izateko nahitaezkoa da, gutxienez, modulu horretako 3 irakasgaitan matrikulatuta egotea.

Lan honek irakasgai bakoitzaren kalifikazioaren % 20ko balioa du eta egokitutako epaimahaiak amaierako lanari ezartzen dio honela banatuta: % 10 txostenari eta % 10 ahozko defentsari. Hortaz, irakasgai bakoitzak 2 puntu eta 1,2 kreditu eskaintzen dizkio lan honi.

Epaimahaia, lauhileko horretako irakasleek osatuko dute, bikoteka. Lanaren defentsa abenduan izango da.

Diziplinarteko lan hau gaindituko ez balitz, irakasgai bakoitzak erabakiko luke zein izango litzatekeen horren ondorioa irakasgaiaren ebaluazio osoaren barruan.

Lana osorik edo partzialki plagiatzeak suposatuko luke deialdi horretako moduluko lana ez gainditzea.

Behin-behineko kalifikazioak **2017ko urtarrilaren 9ko asteen** jakinaraziko dira. Lanaren kalifikaziorako erreklamazio-epaia **2017ko urtarrilaren 17an** amaituko da. Erreklamazioa irakasle-ebaluatzaileei eskatu behar zaie.

IRAKASLE ZEREGINA
DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN)

AHOZKO AURKEZPENA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK (irakasgai guztien kalifikazioaren % 10):

	P.	IRIZPIDEAK	ADIERAZLEAK	KALIFIK.
E D U K I A K	6	Argitasuna	Argi adierazi dira hezkuntzaren inguruko edukiak. Horien ideia nagusiak laburtzeko gai dira taldekideak.	2
		Antolaketa	Aurkezpena era koherentean antolatu da, informazio gehiegi edo gutxiegi eman gabe. Azaldutako edukien artean ez dago errepikapenik edo kontraesanik.	2
		Erakargarritasuna	Edukiak gaiarekiko interesa eta motibazioa piztu dute.	2
F O R M A	4	Hizkuntza	Ahozko hizkuntza zuzentasunez erabili da.	2
		Gorputza, begiradak, keinuak, ahotsa	Egokiak izan dira, bai ahotsaren tonua, abiadura eta bolumena, bai gorputzaren jarrera, begiradak eta keinuak.	2

IRAKASLE ZEREGINA
DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN)

IDATZIZKO TXOSTENA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK (irakasgai guztien kalifikazioaren %10)

	P.	IRIZPIDEAK	ADIERAZLEAK	KALIF.
E D U K I A K	6	Pentsamendu kritiko eta autonomia	Txostenak eduki teorikoen eta hezkuntzako gaurko egoeren artean koherentzia agertzen du. Testuan ikasleen bizipenei buruzko oinarri teorikoak dituzten azalpenak daude.	2
		Hausnarketa	Irakaskuntza laneko kezkei buruzko aurreikuspenak egiten dira. Informazioak, kezkek eta galderak hezkuntzaren eremuko irizipideen baitan antolatu dira.	2
		Dokumentazioa eta informazioa aukeratzea	Hezkuntzarekin lotuta dauden diziplinarteko edukiak sortu dira. Erreferentziak eta bibliografia egokiak dira. Erabili diren iturriak APA arauen arabera daude aipatuta, bai testuan zehar eta bai erreferentzien zerrendan	2
F O R M A	4	Ideen antolaketa eta kohesioa	Ideia nagusiak argi adierazita daude. Testuak koherentzia du, era logikoan ordenatutako atalez osaturik dago	2
		Hizkuntza Formatua	Idatzizko hizkuntza zuzentasunez erabili da. Egoki osatu dira alderdi formalak: letra-mota, paragrafo arteko banaketa...	2

ERANSKINA: 1. IKASLE-TALDEAREN FITXA

Orri hau bete ondoren, utzi **urriaren 10erako** Iker Iraola irakaslearen postontzian, Eskolako sarreran (Atezaintzaren ondoan).

TALDEAREN IZENA: TALDE-ZENBAKIA ETA PRAKTIKA TALDEA: (31/32) (1/2)	
TALDEAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO IKASLEAREN DATUAK: IZEN-DEITURAK: _____ TELEFONOA: _____	
GAIA:	
IZEN-DEITURAK: EPOSTA:	<i>(argazkia itsatsi)</i>
IZEN-DEITURAK: EPOSTA:	<i>(argazkia itsatsi)</i>
IZEN-DEITURAK: EPOSTA:	<i>(argazkia itsatsi)</i>
IZEN-DEITURAK: EPOSTA:	<i>(argazkia itsatsi)</i>

ERANSKINA: 2. MODULUAREN EBALUAZIO-ORRIA

MODULUAREN EBALUAZIO- ORRIA IKASLEENTZAT

- 1) Moduluak aurreikusiak zituen konpetentziak lortu direla uste al duzue? (moduluko konpetentziak DILAN txostenean topatuko dituzue)

- 2) Moduluaren nondik norakoa azaltzen duen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?

- 3) Nolakoa izan da ikasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzei probetxua atera diezue...).

- 4) Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? (Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute...).

- 5) Beste lan mota bat egitea proposatuko zenuke? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan hobekuntzarik planteatuko zenuke? Zeintzuk?